

CARITASEN KANPAINA

*«Inicio del curso pastoral,
Campaña de Cáritas y parroquias y
Jornada Mundial del Migrante y del
Refugiado»*

2022.eko IRAILAREN 25a

**URTEAN ZEHARREKO XXVI.
DOMEKEA (C)**

Liturgia lagungarriak

Atarikoak:

- ✠ Lagungarri honeek liturgiarako talde eragilearen esku iztea komeni da.
- ✠ Lagungarriak aurrerapenez prestatu doguz. Ez ahaztu, kanpaina egiten danean Jainkoaren herriaren otoitzean sartzea egoki dan gertaerak izan daitezkeza.
- ✠ Ezinbestekoa da liturgia lagungarriekin batera bialtzen doguzan materialak irakurtea kanpainaren senaz jabetzeko.

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Domekero konbidatzen gaitu Jau-nak, Eukaristiaren mahaian parte hartu daigun eta batasun eta senidetazunezko zubiak eraiki daiguzan.

Eleizbarrutiko pastoral kurtsoari eta Ebanjelizatze-aren Eleizbarrutiko seigarren Egitasmoari hasiera emoten dihardugu. Egitasmoak dei egiten deusku edonon egonda be lekukotasuna emon daigun, Jaunagaz egonda beronek emoten deusalako indarra lekukotasun horri.

Gaur, gainera, Caritasen eta parrokien kanpaina bateratua ospatuko dogu. “Alkarregaz bide egitean” datza, Bizkaiko kristau alkartea osatzen dogunon aniztasunetik eta askotariko ekimenetatik. Horregaitik, asteburu honetan batu daiten dirua kurtsoaren hasierak Caritasi zein pastoral barruti eta parrokiei eragiten deutsezan gastuei aurre egiteko izango da.

Eta Etorkin eta Errefuxiatuaren Munduko Eguna be gaur ospatzen dogu. “Etorkizuna etorkin eta errefuxiatuakaz batera eraiki” goiburua aukeratu dau Frantzisko Aita Santuak, guztioi dagokigun eta

CAMPAÑA DE CÁRITAS

*«Pastoral kurtsoaren hasiera,
Caritasen eta parrokien kanpaina
eta Etorkin eta Errefuxiatuaren
Munduko Eguna»*

25 de SEPTIEMBRE de 2022

**XXVI DOMINGO DEL TIEMPO
ORDINARIO (C)**

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✠ Conviene pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.
- ✠ Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.
- ✠ La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es necesaria para comprender el sentido de la Campaña.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Cada domingo somos invitados por el Señor a compartir la mesa de la eucaristía y crear puentes de unión y fraternidad.

Estamos iniciando el curso pastoral en la Diócesis y también el sexto Plan Diocesano de Evangelización que nos invita a dar testimonio allí donde estamos porque estamos con el Señor del que le viene la fuerza a nuestro testimonio.

Este domingo es, a la vez, la campaña conjunta de Cáritas y las parroquias. Se trata de "caminar juntos" desde la diversidad de personas e iniciativas que conformamos la comunidad cristiana en Bizkaia. Así, la colecta de este fin de semana se destina a sufragar los gastos que genera el inicio de curso, tanto en Cáritas como en cada unidad pastoral y parroquia.

Hoy es también la Jornada Mundial del Migrante y del Refugiado. “Construir el futuro con los migrantes y los refugiados” es el lema elegido por el Papa Francisco y destaca el compromiso al que todos estamos llamados a poner en práctica para construir un futuro que responda al plan de Dios, sin





guziok gauzatu behar dogun konpromisoa nabarmenduz, horixe da-eta Jainkoaren egitasmoa, inor kanpoan izten ez dauana.

Abestuz ekingo deutsagu ospakizunari.

SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Aberats izanda gu aberasteko pobre egin zan Jauna, zuekin.

DAMU OTOITZA

Ospakizunaren hasieran, eskatu deiogun Jaungoikoari bihotz-barritzeko laguntza. (Isilunea)

- Gaitzespena eta bazterketa jasan zenduzana:
Erruki, Jauna.
- Gurasoakaz batera, jazarpena eta erbestea ezagutu zenduzana:
Kristo, erruki.
- Bihotz-barritzeko dei egiten deuskuzuna:
Erruki, Jauna.

OHARRA 1. IRAKURGAIARI (AM 6, 1A. 4-7)

Aberastasunen kalteen inguruko Amos profetaren orakulua entzungo dogu. Profetaren esanetan, aberatsek ez deutse inori kalterik egiten, baina euren konfiantza aberastasunetan jarten dabe eta inguruaz gertatzen danaz arduratu barik gozatzen dabe aberastasunez. Arduragabetasunak Jainkoa ahaztea be badakar.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI (1 TM 6, 11-16)

Fedea kristauaren doe bereizgarri diran maitasun, itxaropen eta sentiberatasunari lotuta dago. Zuzentasuna eta errukia besteekazko eta Jainkoagazko hartu-emonari lotuta gauzazen dira. San Paulok Timoteori agertutako burubide hau geuri egiten deuskun dei lez entzun daigun.

excluir a nadie.

Iniciamos la celebración unidos en el canto.

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, que, siendo rico se hizo pobre para enriquecernos, esté con todos vosotros.

ACTO PENITENCIAL

Al comenzar esta celebración, pidamos a Dios que nos conceda la conversión de nuestros corazones. (Instantes de silencio)

- Tú, que sufriste el rechazo y la exclusión:
Señor, ten piedad.
- Tú, que con tus padres conociste la persecución y el exilio:
Cristo, ten piedad.
- Tú, que nos llamas a la conversión:
Señor, ten piedad.

MONICIÓN a la 1ª LECTURA (AM 6, 1A. 4-7)

Escuchamos un oráculo del profeta Amós sobre los perjuicios de las riquezas. El profeta se refiere a los ricos que no hacen daño a nadie, pero ponen su confianza en las riquezas y disfrutan de ellas sin preocuparse de lo que ocurre a su alrededor. Su despreocupación es también olvido de Dios.

MONICIÓN a la 2ª LECTURA (1 TM 6, 11-16)

La fe se encuentra asociada al amor, a la esperanza y a la delicadeza, virtudes fuertes características del cristiano. Practicar la justicia y la piedad hace referencia a las relaciones con los otros y con Dios. Escuchemos esta exhortación de San Pablo a Timoteo como una llamada dirigida también a nosotros.



EBANJELIO MK (LK 16, 19-31)

Ebanjelioan, mundu honetako ondasunez gabetzea Kristoren ikasleentzako ezinbesteko eskakizuntzat jotzen dau San Lukasek. Danok bete behar dogu Jaunaren agindua, besteak, eta batez be behartsuak, maitatzearena.

JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Egin deiogun otoitz zapaldui justizia egiten deutesen Jainko gure Jaunari.

1. Eleizaren alde. Bizkaian erromes doan Eleizak ikasle eta misiolarien alkarte lez hazteko bitarteko lez hartu daiala Ebanjelizatze-egitasmoa.

Eskatu deiogun Jaunari.

2. Caritasen alde. Axolagabekeriari aurre egingo deutesan eta edozein bazterkeriaren biktimei dagokiezan duintasun eta eskubideak autortuko dituan gizarte ereduaren alde jardun daian nekatu barik. **Eskatu deiogun Jaunari.**

3. Etorkin eta errefuxiatuen alde. Euren etorrera aberastasun-iturritzat hartu daigun, euren ekarpena –lana, sakrifizioa, gaztetasuna, gogo bizia- funtsezko da-eta gure gizarteen gizarte eta ekonomia hazkunderako eta aberasgarri gure alkarteetarako. **Eskatu deiogun Jaunari.**

4. Gu guztion alde. Ez dakigula bihotza gogortu eta sentiberatasunez erantzun deiogula Jainkoak mundu honetako behartsuen bidez egiten deuskun deiari. **Eskatu deiogun Jaunari.**

Behartsuari bere izenez deitzen deutesazun Aita Jaungoikoa, entzun gure otoitzak eta emon indarra besteen beharrizanez jaubetuz bizitzeko.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Ondasunak banatzeak alkartearen senide-senaren eta bizitasunaren adierazpen izan behar dau. Gaur batu daiten dirua Eleizbarrutiko Caritasen eta alkarte honen esku itziko da, sortu daitekezan beharrizanez aurre egin deieen. Diru-laguntza hau ezinbesteko da askotariko jarduerak garatzeko. Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

EVANGELIO MC (LC 16, 19-31)

En el evangelio, san Lucas hace del desprendimiento de los bienes terrenos una exigencia indispensable en la vida de los discípulos y discípulas de Cristo. Todos hemos de guardar el mandamiento del Señor: el amor a los demás, especialmente a los pobres.

ORACIÓN UNIVERSAL

Oremos al Señor, nuestro Dios. Él hace justicia a los oprimidos.

1. Que, para la Iglesia que peregrina en Bizkaia, el Plan Diocesano de Evangelización sea un instrumento que la ayude a crecer como comunidad discípula y misionera. **Roguemos al Señor.**

2. Que Cáritas no se canse nunca de trabajar por un modelo social en el que se plante cara a la indiferencia y se reconozcan la dignidad y los derechos de quienes son víctimas de cualquier discriminación. **Roguemos al Señor.**

3. Que la llegada de personas migrantes y refugiadas se perciba como fuente de enriquecimiento porque su aportación ha sido fundamental para el crecimiento social y económico de nuestras sociedades y lo sigue siendo también hoy por su trabajo, su capacidad de sacrificio, su juventud y su entusiasmo que tanto enriquecen a las comunidades que los acogen si se les ofrece la oportunidad. **Roguemos al Señor.**

4. Que no se endurezca nuestro corazón y seamos sensibles a la llamada de Dios a través de los pobres y descartados de este mundo.

Roguemos al Señor.

Dios Padre, que llamas por su propio nombre al pobre, escucha nuestras oraciones y danos fuerza para vivir atentos a las necesidades de los demás.

Por Jesucristo, nuestro Señor.

MOTIVACIÓN A LA COLECTA

La comunión de bienes debe ser expresión fraterna y signo de vitalidad de la comunidad. La colecta de hoy será destinada a Cáritas Diocesana y a las necesidades de esta comunidad. Apoyo económico que permite el sostenimiento de las diferentes acciones desarrolladas. Gracias a todos por vuestra generosidad.

JAUNARTZE OSTEKO ISILTASUNEAN (Frantzisko aita santuaren otoitza)

Jauna, itxaropen-eroale izan gaitetzala, iluntasuna dan lekuan zure argia hedatu daigun, eta etsipenaren ordeztokizunean konfiantza sustatu daigun.

Jauna, zure zuzentasunaren bitarteko izan gaitetzala, bazterketaren gainetik senidetasuna loratu daiten, eta diru-gosearen gainetik alkartasuna.

Jauna, zure Erreinuaren eraikitzaile izan gaitetzala, etorkin eta errefuxiatuak eta kanpoaldeetan bizi diran guztiak batera.

Jauna, anai eta arreba lez bizitzea zein ederra dan ikasi daigula. Amen


EN EL SILENCIO DESPUÉS DE LA COMUNIÓN (oración del papa Francisco)

Señor, haznos portadores de esperanza, para que donde haya oscuridad reine tu luz, y donde haya resignación renazca la confianza en el futuro.

Señor, haznos instrumentos de tu justicia, para que donde haya exclusión, florezca la fraternidad, y donde haya codicia, florezca la comunión.

Señor, haznos constructores de tu Reino junto con los migrantes y los refugiados y con todos los habitantes de las periferias.

Señor, haz que aprendamos cuán bello es vivir como hermanos y hermanas. Amén.



Irailak 24 septiembre
GOAZEN! Jesuitak Indautxu (Jornada: 10:30 h.) (Comida: 13:30 h.)
Irailak 25 septiembre
Campaña Cáritas / comunidad cristiana



Irailak 24 septiembre
GOAZEN! Jesuitak Indautxu (Jornada: 10:30 h.) (Comida: 13:30 h.)
Irailak 25 septiembre
Campaña Cáritas / comunidad cristiana

